

# Kotlarro

2009ko jaiak

debaldeko alea

## Garean Lizarrako festetan

Gareanek Lizarrako euskaldunoi eta egun hauetan Lizarrara hurbiltzen zareten euskaldunoi esparru eta gune euskaldunak eskaintzen dizkizue. Euskaraz pozik eta umoretsu Lizarrako jaiak gozatu ahal izateko jai alai eta jaietan kantuz.

Aurten, gainera, festetako egunei luxuzko hitzaurrea emanez, uztailaren 30ean, ortzeguna, arratsaldeko 7etan, Lizarrako Udala-ren eta Garean Elkartearen eskutik, KULKI izanen dugu Foruen plazan. Talde honek herri jolasak plazaratzen ditu beti ere tradiziozko lanbide bati lotuta: festen aitzineko saioan Arrantzaleen jolasak proposatuko dituzte: imajina dezakezue Lizarra itsas portu!

**Garean egitarau osoa 7. orrian.**



## Badatoz, badatoz jaiak!

Urtero bezala, festak hemen daude, eta gu, urtero bezala, arropa zuri eta zapi gorri galduen bila, espartinak frogatzen, prest, urduri, kilikak sabelean... Festa usaina zabaltzen da Lizarrako karriketarik: beroa, Erdi Aroko Astea, Santiago eguna, entzierroen hesia... eta egitarauak. Hona hemen gurea. Ongi pasa!

### Uztailaren 31a, ortzirala

- 12.00etan** Udaletxeko balkoitik, **SUZIRIA**; Larraiza eta Ibai-Ega taldeetako dantzariak Larrain Dantzaren Jota Zaharra dantzatzeko dute, eta musika banda, txistulariak, gaiteroak, errondailak, akordeoilariak, dantzari ohiak, kalejira alaitsuak jotzen eta dantzatzatzen ibiliko dira kaleetan zehar.
- 12:15etan** Foruen plazan, haurrendako bonba japoniarrak.
- 12.30etan** Los Llanos-ko zubian, CUCAÑA.
- 13.00etan** **Foruen plazan, dantzari ohiek omenaldia Iruñeko gaiteroei, Larrain-dantza.**
- 13.00etan** San Martin plazan, VOCES NAVARRAS jota taldearen ekitaldia.
- 16.30etan** Ospitale Zaharretik, **ERRALDOI ETA BURU HANDIEN konpartsa ireteera.**
- 17:45etan** Udal Gorenaren irteera bere segizio ofizialaz lagundurik.
- 18.15etan** Puy Birjinaren Basilikan BEZPERA NAGUSIAK.
- 18.30etan** Haurrendako, bonba japoniarrak Puy-ko zelaietan. Jarraian ohiko PUY-tik JAITSIERA.
- 20.15-21:45** Foruen plazan, haurren ikuskizuna CHIPI SABIRON eta ARTURO CATAFLOF-ekin.
- 20.30etan** Foruen plazan, dantzaldia SCORPIO orkestrarekin.
- 21.00etan** BEHI IGOERA entzierroaren bidean zehar.
- 22.00etan** San Andres eta La Bota peñen irteera Udaletxetik.
- 23.00etan** Foruen plazan, zezensuzkoaren lasterketa.
- 23.00etan** **Santiago plazan, dantzaldia MODESTO gizon orkestrarekin.**
- 24.00-1.00** **Txozenetan, rock kontzertua.**
- 01.00etan** Foruen plazan, dantzaldia SCORPIO orkestrarekin.
- 1:45-3:45** **Foruen plazan, Larrain Dantza, Desmayoa eta Lizarrako Potpurria Iturrieta Gaiteroekin. Jarraian, CHE-ra jaitsiera La Bota peñarekin.**
- Foruen plazan, dantzaldia SCORPIO orkestrarekin.

## Abuztuaren 1a, larunbata

- 8.00etan** Dianak eta alboradak Musika Banda eta gaiteroekin.  
**8.00etan** BEHI ENTZIERROTXOA.  
**8.15-9.00** **Lizarra Ikastolaren Barrakan SALDA.**  
**9.00etan** BEHI ENTZIERRUA; zezen plazan, betizuak.  
**10.30etan** Remontival pilotalekuan, Eskuz Binakako IV. Pilota Txapelketaren Finalak.  
**10.30etan** Lizarrako Udaltzaren irteera.  
**11.00etan** Puy Birjinaren Basilikan, MEZA NAGUSIA.  
 Jarraian bonba japoniarrak.  
 Segidan, NESKEK PUY-tik JAITSIERA.  
**12.00etan** **LIZARRAN KANTUZ, Baxenafarra kaletik hasita, Garean-en eskutik.**



- 13.00etan** Los Llanos Pasealekuan, MAESEVILLAREJO ETA BERE PANPIN ANIMATUAK txotxongilo antzerkiaren ekitaldia.  
**17.15etan** Lizarrako Udaltzaren irteera.  
**17.30etan** San Miguel elizan, BEZPERA NAGUSIAK.  
**18.30etan** Zezen plazan, ZEZENKETA HANDIA  
 Manuel Diaz "El Cordobés" - Domingo Lopez Chaves - El Fandi Jarraian, zaletuentzat betizuak eta peñen irteera.  
**19.00etan** San Martin plazan, haurrentako antzerkia BIRLIBIRLOQUE taldearekin.  
**19.30-21.00** Foruen plazan, dantzaldia CAIMAN SHOW orkestrarekin.  
**20.30etan** **Santiago plazan, JAI ALAI LAIA LASTERKETA, Garean-en eskutik.**  
**21.00-22.00** **Foruen plazan, dantzak Deierriko Akademiako gaiteroekin eta Aita Hilario Olazaran txistulariekin.**  
**22:45etan** San Benitoko patiotik, Piroteknia Zaragozanaren eskutik, SUZIRI SORTA.  
**23.00etan** **Santiago plazan, dantzaldia LAIOTZ taldearekin.**  
**23.00etan** **Txoznetan, rock kontzertua.**  
**24.00-1.00** Foruen plazan, dantzaldia CAIMAN SHOW orkestrarekin.  
**1.00ean** **Foruen plazan, Larrain Dantza, Desmayoa eta Lizarrako Potpurria Hermanos Montero Gaiteroen eskutik.**  
**Jarraian, CHE-ra jaitsiera La Bota peñarekin.**  
**1:45-4:45** Foruen plazan, dantzaldia CAIMAN SHOW orkestrarekin.

## Abuztuaren 2a, igandea

- 8.00etan** Dianak eta BEHI ENTZIERROTXOA.  
**8.15-9.00** **Lizarra Ikastolaren Barrakan, SALDA.**  
**9.00etan** BEHI ENTZIERRUA; zezen plazan, betizuak.  
**10.30etan** Lizarrako Udaltzaren irteera.  
**11.00etan** San Pedro de la Rúa elizan, MEZA NAGUSIA.  
**11.30etan** Los Llanos Pasealekuan, MAESEVILLAREJO ETA BERE PANPIN ANIMATUAK txotxongilo antzerkiaren ekitaldia.  
**12.00etan** PROZESIO HANDIA San Pedro de La Rúa elizatik.  
 Jarraian LA PAÑUELADA.  
**18.30etan** Zezen plazan, ZEZENKETA HANDIA  
 Francisco Marco – Luis Bolívar – Sebastian Palomo Linares (semea) Jarraian, zaletuentzat betizuak eta peñen irteera.  
**19.00etan** Santiago plazan, haurrentako antzerkia CHIPILANDIA SHOW taldearen eskutik.  
**20.30etan** **Santiago plazan, JAI ALAI HERRI DANTZA TRADIZIONALAK, Garean-en eskutik.**



- 19.30-21.00** Foruen plazan, dantzaldia GEISER orkestrarekin.  
**21.00-22.00** **Foruen plazan, dantzak Hermanos Montero Gaiteroekin eta Aita Hilario Olazaran taldeko txistulariekin.**  
**22.00etan** Foruen plazan, zezenuzkoaren lasterketa.  
 Jarraian, CHE-ra jaitsiera La Bota peñarekin.  
**22:45etan** San Benitoko patiotik, Piroteknia Zaragozanaren eskutik, SUZIRI SORTA.  
**23.00etan** **Santiago plazan, dantzaldia DRINDOTS taldearekin.**  
**24.00-1.00** Foruen plazan, dantzaldia GEISER orkestrarekin.  
**01.00ean** **Foruen plazan, Larrain Dantza, Desmayoa eta Lizarrako Potpurria Udaltzaren Ruiz-Etxeberria gaiteroekin.**  
**1.30-3.30** Foruen plazan, dantzaldia GEISER orkestrarekin.

Bodegas  Lezaun  
 Asador-Jatetxea

Enoturismo  
 Bisita gidatuak  
 Ardo-dastaketak

Lakar (Deierri) NAFARROA  
 info@lezaun.com - www.lezaun.com  
 Bodega 948 541 339 - Asador 948 541 231

**KATXETAS**  
 Taberna

Estudio de Gramática, 2  
 31200 Lizarra- Nafarroa

Tel. 948 550 010



## Abuztuaren 3a, astelehena

- 8.00etan** Dianak eta alboradak eta BEHI ENTZIERROTXOA.  
**8.15-9.00** **Lizarra Ikastolaren Barrakan, SALDA.**  
**9.00etan** BEHI ENTZIERRUA; zezen plazan, betizuak.  
**10.00etan** Nafarroa Beherea kalean, sasi-entzierroa (haurrendako), "Como Quieras" taldearekin.  
**11.00etan** **ERRALDOI ETA BURU HAUNDI KONPARTSAREN irteera, udaletxetik.**  
 Ondoren, bonba japoniarrak Foruen plazan.  
**11.00etan** HAMAIKETAKO San Martin plazan, ardoa eta garagardoa Udalaren opari. Jarraian BOMBADA hiriko kaleetan zehar.  
**11.00etan** San Juan elizan, meza, Foruen plazan UDALAREN OMENALDIA NAGUSIEI eta "La Ribera canta" folklore-taldearen emanaldia.  
**12.30etan** **Los Llanos pasealekuan, KONTZERTUA** Lizarrako Musika Bandaren eskutik. Atsedenaldira Udalaren Gaita Akademiako gaiteroen ekitaldia.  
**13.00etan** **Aita Hilario Olazaran txistulari taldearen kalejira.**  
**13.00etan** Los Llanos pasealekuan, MAESE VILLAREJO ETA BERE PANPIN ANIMATUAK txotxongilo antzerkiaren ekitaldi berria.  
**17.30etan** San Migeleko zelaian, bonba japoniarrak.  
**18.00etan** San Miguel auzoko pilotalekuan, haur jolasak, "Como Quieras" taldearen eskutik.  
**18.30etan** Zezen plazan, BURTZIKADA ARTEAREN ZEZENKETA Joao Salgueiro - Pablo Hermoso de Mendoza - Manuel Manzanares Jarraian, zaletuentzat betizuak eta peñen irteera.  
**19.00etan** **San Martin plazan, "Gorriti".**  
**19.30-21.00** Foruen plazan, boleroak eta habanerak TARANTELLA orkestrarekin.  
**20.30etan** **Santiago plazan, JAI ALAI: KARBA ETA TOKA JOKOA, Garean-en eskutik.**  
**21.00-22.00** Foruen plazan, bertako musika Ruiz-Etxeberria gaiteroen eskutik eta Aita Hilario Olazaran taldearen txistulariekin.  
**22.00etan** Foruen plazan, zezensuzkoaren lasterketa. Jarraian, CHE-ra jaitsiera La Bota peñarekin.  
**23.00etan** **Santiago plazan, dantzaldia JOSELU ANAIK taldearekin.**  
**23.00etan** **La Bota peñaren egoitza berrian, rock kontzertua herriko taldeekin.**  
**24.00-1.00** Foruen plazan, dantzaldia TARANTELLA orkestrarekin.  
**1.00etan** **Foruen plazan, Larrain Dantza, Desmayoa eta Lizarrako Potpourri-a Udal Gaita Akademiako gaiteroekin.**  
**1.30-3.30** Foruen plazan, dantzaldia TARANTELLA orkestrarekin.



## Abuztuaren 4a, asteartea



- 8.00etan** Dianak eta alboradak eta BEHI ENTZIERROTXOA.  
**8.15-9.00** **Lizarra Ikastolaren Barrakan, SALDA.**  
**9.00etan** BEHI ENTZIERRUA; Zezen plazan, betizuak.  
**10.00etan** Nafarroa Beherea kalean, sasi-entzierroa (haurrendako), "Como Quieras" taldearekin.  
**11.00etan** **ERRALDOI ETA BURU HANDI KONPARTSAREN irteera, udaletxetik.**  
 Haur Korporazioaren harrera Udaletxean.  
**11.30etan** SUZIRIAK. Ondoren, San Pedro de La Rua elizan, Haur Korporazioa. Jarraian, HAUR PAÑUELADA eta itzulera.  
**12.00etan** **Los Llanos pasealekuan, musika banda KONTZERTUA.**  
**Atsedenaldira ekitaldia Deierri gaiteroen eskutik.**  
**Aita Hilario Olazaran txistulari taldearen kalejira.**  
**13.00etan** Los Llanos pasealekuan, MAESE VILLAREJO ETA BERE PANPIN ANIMATUAK txotxongilo antzerkiaren azken emanaldia.  
**13.00etan** **Los Llanos pasealekuan, HAURRENDAKO JOLASPARKE HANDIA.**  
**16.00-20.00** **Remontival pilotalekuan pilota partida profesionalak.**  
**18.00etan** Zezen plazan, NOBILLADA, pikadorerik gabe. Emilio Huertas - Jesus Chober Jarraian, zaletuentzat betizuak eta peñen irteera.  
**18.30etan** Foruen plazan, haurrendako ikuskizuna DIAMANTE SHOW orkestrarekin.  
**19.30-21.00** **Santiago plazan, JAI ALAI: ARRAUTZA JOLASA, Garean-en eskutik.**  
**20.30etan** **Foruen plazan, musika Udalaren Gaita Akademiako Gaiteroen eta Aita Hilario Olazaran taldearen txistulariak.**  
 Foruen plazan, zezensuzkoaren lasterketa.  
 Ondoren, HAURRENDAKO CHE-ra JAITSIERA La Bota peñarekin.  
**21.00-22.00** **Santiago plazan, dantzaldia GAUBELA taldearekin.**  
**22.00etan** Foruen plazan, dantzaldia DIAMANTE SHOW orkestrarekin.  
**23.00etan** **Foruen plazan, Larrain Dantza, Desmayoa eta Lizarrako Potpourri-a Iturrieta gaiteroekin.**  
**24.00-1.00** Foruen plazan, dantzaldia DIAMANTE SHOW orkestrarekin.  
**1.00etan** **Foruen plazan, Larrain Dantza, Desmayoa eta Lizarrako Potpourri-a Iturrieta gaiteroekin.**  
**1.30-3.30** Foruen plazan, dantzaldia DIAMANTE SHOW orkestrarekin.

LIBURUDENDA  
**INO**  
 PAPERDENDA

Kale Nagusia, 78 - Kale Antxo Ramirez, 2  
 Tel. eta fax: 948 550 383 · LIZARRA





## Abuztuaren 5a, asteazkena

- 8.00etan** Dianak eta alboradak eta BEHI ENTZIERROTXOA.  
**8.15-9.00** **Lizarra Ikastolaren Barrakan, SALDA.**  
**9.00etan** BEHI ENTZIERRUA; zezen plazan, betizuak.  
**10.00etan** Nafarroa Beherea kalean, sasi-entzierroa (haurrendako), "Como Quieras" taldearekin.  
**10.30etan** **ERRALDOI ETA BURU HANDI KONPARTSAREN irteera** udaletxetik.  
 Ondoren, bonba japoniarrak Foruen plazan.  
**11.30etan** San Migel auzoko pilotalekuan, "Aparren Jaia".  
**12.00etan** Foruen plazan HERRI KIROLAK, La Botaren eskutik.  
**12.30etan** Los Llanos pasealekuan, Kontzertua Lizarrako Musika Bandaren eskutik.  
 Atsedendian Hermanos Montero Gaiteroen ekitaldia.  
**13.00etan** **Los Estellicas errondailaren eta Aita Hilario Olazaran txistulari taldearen kalejira.**  
**13.15etan** Udaletxean, harrera ofiziala Estellerriko alkateei.  
**18.30etan** Zezen plazan, HERRI ZEKORKETA  
 Agustin Hipolito "Facultades" - Eduardo Solano - Javier Solano  
**20.30etan** BEHI ENTZIERROTXOA.  
**20.30etan** **Santiago plazan, JAI ALAI SOKATIRA, Garean-en eskutik.**



- 21.00etan** BEHI ENTZIERRUA.  
**19.30-21.00** Foruen plazan, dantzaldia PASSARELA orkestrarekin.  
**21.00etan** Peñaz peña kalejira NESKEN txarangarekin, "Berdintasunaren alde mugituz".  
**21.00-22.00** **Foruen plazan, musika Deierri Akademiako gaiteroekin eta Aita Hilario Olazaran txistulariak.**  
**22.00etan** Foruen plazan, zezenuzkoaren lasterketa.  
 Jarraian, CHE-ra jaitsiera La Bota peñarekin.  
**23.00etan** **Santiago plazan, dantzaldia MODESTO gizon orkestrarekin.**  
**24.00-1.00** Foruen plazan, dantzaldia PASSARELA orkestrarekin.  
**1.00ean** **Foruen plazan, Larrain Dantza, Desmayoa eta Lizarrako Potpourri-a Hermanos Montero gaiteroen eskutik.**  
**1.30-3.30** Foruen plazan, dantzaldia PASSARELA orkestrarekin.

## Abuztuaren 6a, ortzeguna

- 8.00etan** Dianak eta alboradak eta BEHI ENTZIERROTXOA.  
**9.00etan** BEHI ENTZIERRUA; zezen plazan, betizuak.  
**10.00etan** Nafarroa Beherea kalean, sasi-entzierroa (haurrendako), "Como Quieras" taldearekin.



- 11.00etan** **ERRALDOI ETA BURU HANDI KONPARTSAREN irteera, udaletxetik.**  
**11.15etan** Urederra Ibaia plazan, bonba japoniarrak.  
**11.30etan** Santiago plazan, XXXIX AJOARRIERO LEHIAKETA.  
**13.30etan** Ajoarriero Lehiaketaren lapiko hertsatzea.  
**17.30etan** BEHI ENTZIERROTXOA.  
**18.00etan** BEHI ENTZIERRUA zezen plazaraino.  
**19.00etan** San Migel auzoko pilotalekuan, haurrendako ikuskizuna ALEGRIA CIRCUS taldearekin.  
**18.00etan** BEHI ENTZIERRUA zezen plazaraino.  
**19.00etan** **Santiago plazan, AJOARRIERO LEHIAKETAren emaitza eta jarraian afari-askaria.**  
**19.30-21.00** Foruen plazan, herri-dantzaldia VARADERO orkestrarekin.  
**21.00-22.00** **Gaita Musika Hermanos Montero gaiteroen eskutik.**  
**22.00etan** Foruen plazan, zezenuzkoaren lasterketa.  
 Jarraian CHE-ra jaitsiera La Bota peñarekin.  
**24.00-1.00** Foruen plazan, herri-dantzaldia VARADERO orkestrarekin.  
**1.00ean** **Foruen plazan, Larrain Dantza, Desmayoa eta Lizarrako Potpourri-a Deierriko Akademiako gaiteroekin.**  
**1.30-3.30** Foruen plazan, herri-dantzaldia VARADERO orkestrarekin.

Jai Zoriontsuak!

**ANETSIA**  
 948551998  
**FAXY DIEGO Y**  
**LIZARRA**

Bokatak, hamaiketakoak eta afari goxoak

Jatetxea

**Volante**

Lagun-taldeendako bazkariak eta afariak  
 Merkatondoa, 14 · 31200 Lizarra · 948 555 695

## Lizarrako txoznak



### Uztailak 30, ortzeguna

- 23.00 txupinazo + ekitaldia
- 24.00 kontzertua
  - JEIMOND TURK BAND
  - M.D.O.
  - BLOK

### Uztailak 31, ortzirala

- 14.30 herri bazkaria txozna gunean
- 19.30 kalejira + elektro-txaranga
- 24.00 kontzertua
  - HOTZ
  - LAS CULEBRAS
  - LOS IMPECABLES
  - Dj Mon-T & Dj DGTO

### Abuztuak 1, larunbata

- 24.00 kontzertua
  - IKARA
  - LA PURRIA
  - KEROBIA
  - Txarli Txustarra2 / Satan 666 live and DJ E-Tek / Nitro and Pandortek / Abuelo E.M.I.S. Live and Dj Aupa

### Abuztuak 2, igandea

- Kontzertuak: ESTELLERRIKO MUSIKA TALDEAK

## Ikastolaren barraka



Lizarra Ikastolak herriko jaietarako hainbat ekitaldi antolatuta du Santiago plazan (10.30etatik aurrera), jaietako euskal giroko gunea eskaini nahian:

- |                |                      |
|----------------|----------------------|
| • Ortzirala 1  | <b>Modesto</b>       |
| • Larunbata 2  | <b>Laiotz</b>        |
| • Igandea 3    | <b>Drindots</b>      |
| • Astelehena 4 | <b>Joselu Anaiak</b> |
| • Asteartea 5  | <b>Gaubela</b>       |
| • Asteazkena 6 | <b>Modesto</b>       |

Bertzalde, ohiko SALDAren banaketa goizeko 08.00etatik 09.00arte.

## «Momentikoak»

### Bittor

Herrikoiak, intimoak, errebindikatiboak, bikotekoak, pertsonalak, alkoholikoak, erlijiosoak, parranderoak, sentsualak, ganberroak, zaratatsuak, koadrilakoak... baina sentimendua ezkutatzeko ez badute, *posoa* uzten ez badute, ezin dira, ezin dut (Iruñean herrikoiak, intimoak, errebindikatzaileak, bikotekoak, pertsonalak, alkoholikoak, erlijiosoek dioten bezala) «momentiko»tzat jo.

Eta ez naiz askotan aipatzen den «momentiko kasta» horretaz mintzo. Bakoitzak bere biziko jaietan, bere barneko jaietan bizi dituen momentikoez ari naiz.

Izan ere jaiak une bereziz josita daude eta bakoitzak modu ezberdin batez bizi ditzakegu.

Bakoitzak berea izango du, bat baino gehiago ziur aski, zitzu bizian pasatu eta minutu bat baino iraun ez ziona, edo behin gertatu eta bitzita osorako bere ondoan eramango duena.

Txuri eta gorri jantzitako une ahaztezin horiek dira jaiak modu berezi batez begiratzea eginarazten digutena.

Neuk ere halakoak baditut, Gozategiren musikaz alaiturik dagoena edota, duela urte batzuk, jaietan «Hertzainak»ek Llanosetan eman behar zuen eta inoiz entzun ez genuen kontzertua dira horren adibideak. Kasu honetan, bitxia bada ere, gertatu ez zen gauza bat une ahaztezina bihurtu zitzaigun (jaien misterioa ala?) eta konturatu orduko, askotan gertatzen zaigun bezala, neure bizitzako momentikoen historiara pasatu zen. Auskalo zergatik: jaiak zirelako?, gazteagoak ginelako?, kalimotxoak bere lana egin zuelako? Ziur aski osagai guzti horiek elkartzen zirelako.

Horrela sortzen dira jai egitarauetan edota lizarratar «dibinoen» oinarritzko manualetan agertzen ez diren momentiko txurigorri horiek, behar diren osagai guztiak nahasten direnean. Bat-batean, inori baimenik eskatu gabe, inork espero ez duenean eta gauza arruntenean eraginez norberaren barnean sentimendua sortuz. Guztien aurrean kontatuko ditugunak edo aitorezinak izango direnak.

Bada segundoz segundo jaiak urtero asmatuko bagenitu bezala, lizarratarren gauza on eta txar guztiekin, gure herriaren nortasunaz blai eta bakoitzaren sormenaren laguntzaz.

Aurten ere zazpi egun horiek jarraituko ditugu asmatzen, gure bizitzako jai egitarauaren erdialdeko orrialdeetan posterrak balira bezala bakoitzaren momentikoak ager daitezkeen. Badakizu, ez?: herrikoiak, intimoak, errebindikatzaileak... nireak, zureak. Azken finean jaiak egiten dituztenak.

Gazte giroa Lizarrako alde zaharrean

# Bar Berri

Navarrería, 47 • Tel. 948 54 66 46

markoen ipinketa  
**zurriola**  
enmarcaciones

Kale Nagusia, 80  
31200 Lizarra-Estella  
Tel.: 948 55 22 86 - 948 55 29 94

## Montejurrako txoriak, Montejurra laket



### Ohitura zaharrak ohitura txarrak

— Regino Etxabe

Nik, Lizarrako txoria izanik, Lizarra laket. Eta bertako anitz tradizio eta ohitura zahar dut gus-tuko. Baina ez denak. Batzuk zorionez pasatutako garaietako isla direlako eta bertze batzuk, ene ustez, ohitura zaharrak baino ohitura txarrak di-relako. Eta ez naiz zezenketaz ari. Gizonen eta emakumeen arteko ezberdintasunak areagotzen dituztenez ari naiz; edo bizilagun batzuen eskubi-deak kolokan jartzen dituztenez; edo gure osasu-naren kontrakoez...

Dena den, gure herriko festetako egitaraua be-gizatzen, beti bezalakoa jarraitzen duela ikus de-zakegu: cucaña, «Udal Gorenaren» irteerak, jaitsierak, igoerak («Puy Birjinaren» basilikara, ja-kina), «prozesio handiak», dantzaldiak orkestra erraldoiekin (neska eta mutil katxarroak kantari dituztela, noski), alboradak... Eta gazteak txabis-ketan. Eta helduok ulertu ezinik.

Pittinka-pittinka gauza berriak sortzen ari dira: txosnetako kontzertuak, La Bota peñarenak, Ga-rean elkarteak antolatzen dituen «Jai Alai» saioak edo berdintasunaren aldeko kalejira, kasu. Baina apurka, geldi-geldi.

Noizko festetako egitarauaren berrikuntza? Edo bizi garen gizartea ez da hainbertze aldatu?

## Tximeleta zurigorria

— Luisfer Etxeberria

Tximeleta baten hegaldiak, antipodetan bada ere, izan dezake eragina gure artean. Lizarrako Rua kaleko gure lagun zurgin batek beste modu batetan esa-ten du gauza bera: «Saltzen ez dudan altzari bakarra, egiten ez dudana hura».

Bada ipuin zahar bat munduko indartsuena nor den argitzen saiatzen dena: Eguzkia? Itzala egiten dion hodeia? Eramaten duen haizea? Oztopatzen duen mendia? Zulatzen duen satorra? Ipuin jakintsuak protagonista tikien-a-ren alde egiten du!

Horregatik nion antipodetako pinpiliinpaua baten hegaldiak gure artekoa inarros zezakeela. Adibide modura, hamar altxalili hegaldi aipatuko dizkizuet, arinak baina garrantzitsuak:

1. Lizarrako bi euskaldun zuka aritu beharrean hika egiten hasi dira.
  2. Bat biraoak nola bota ikasten hasi da, edonori krixtoarenak esateko.
  3. Estellerriko euskal idazleen zerrenda osatzen ari da, euskal literaturaren mapan agertzeko.
  4. Mintzakide martxan dago Mentxuren trikitixaren eskutik.
  5. Lizarrako liburudenda guzietan badakite euskaldunok irakurri, gozatu eta oparitzen dugula.
  6. Hilean behin kalez-kale kantari ibiltzen gara eta laster kantutegi berri bat beharko dugu, lehenengoa agortuta.
  7. Beharrak erakusten duenez bidea, badakigu bidea nola egin.
  8. Iirin errotan bezala, biraka dabilen harria, sorkuntzan ari den herria: mi-lesker horregatik arlo ezberdinetan laguntzen duzuen guzietan: irrati saioa, Jolas-Solas, Jai Alai, Larunblai, Lizarran Kantuz, Kotarro, Mintzakide, Txo-kolipuinak eta web orria dizuegu zor.
  9. Codex Calistinus Codex Gareanus bihurtu dugu, aintzina oraina egin. XII. mendeko naparrek euskaraz egiten zuten.
  10. Hamargarren zurigorria. Lizarrako festak dira eta tximeleta zurigorritz apainduko da: Jai Alai deituko diogu eta ia egunero arratsaldeko zortzi t'er-dietan Santiago plazan hegaldatzen ikusiko duzue. Egitarauan daukazu!
- Besterik gabe, Jai Alai on Lizarrako festetan!



**Udalbide.NET**  
www.udalbide.net

ALBISTEAK ETA INFORMAZIOA GUZTIA ESKURA

Sartu zure udalberria eta ikus ezazu zure UDALEKARIAREN informazio guztia eguneratua.

Ezagutu ezazu Euskal Herria, EUSKAL HERRIA SAKONEAN atalaren bitartez. Hor auzitiko dituzue Lurraldea, Biztanleria, Ekonomia eta gizartea, Euskana eta hasbuntza, Udalerriak eta Euskal Diasporen inguruko gaurkotutako datu guztiak.

Eta harpidetu zailiez BULETIN ASTEKARI ELEKTRONIKOra. Astero jasoko dituzue azken-azkeneko berriak

ZUREKIN

www.udalbide.net  
www.udalbiltza.eu

**Mirari**  
centro de estética y masajes

c/ urbieta, 1 / 31200 estella  
t. 948 554 001

www.centromirari.com



# Garean-jarduerak - JAI ALAI 2009

GAREANek ekitaldi eskaintza oparoa prestatu du aurtengo Lizarrako Jaierako, JAI ALAI izenekoa, horixe baita nahiko genukeena, jai giroan une pozgarriak pasatzea mingaina euskaraz dantzatzuz.

Ohikoan Santio plaza izanen dugu topaleku, baina ez beti, izan ere, festa bezperako ekitaldia, KULKIrena, Foruen plazan izanen baita, toki zabalagoa eskatzen duelako.

Ordua edo tenorea, orokorrean, arratsaldeko zortzi t'erdietan izanen da, baina honek ere baditu bi salbuespen: KULKIrenak, arratsaldeko zazpitan hasi eta bederatzia arte iraunen du. Azkeneko eguneko Sokatira Txapelketa, berriz, zazpi t'erdietan hasiko da.

Aurten Jai Alairen sintonia estreinatuko dugu, egunero-egunero Jai Alairi hasiera eta bukaera emateko. Kanta lñigo Osinagak konposatu eta ekoiztu du, Aitor Irazustabarrena (bertsoa), Amaia del Campo (trikitixa) eta Rodrigo txalapartariaren laguntzaz. Ziur gaude asko gustatuko zaiuzela Lizarrako artista honen lana.

Hona hemen zertzelada batzuk dastatu ahal izanen ditugun ekitaldiei buruz:

## KULKI

Talde honek, Asier Lafuente eta Luisfer Etxeberriak osatua, herri jolasak plazaratzen ditu beti ere tradiziozko lanbide bati lotuta: baserrikoak, arrantzaleenak, artzainenak ala meatzarienak. Uztailearen 30eko saioan **Arrantzaleen jolasak** proposatuko dituzte: imajina dezakezue Lizarra itsas portu?

## Lizarran Kantuz

Abuztuaren bateko eguerdiko hamabietan hasiko da Baxenabarra kaleetik eta ohiko ibilbidea egingo du: Baxenabarratik Santio plazara, hemendik Kaldererian barna Foru plazara, Izar kaleetik Nabarreriarra eta, bukatzeko, kale Nagusitik Baxenabarraraino. Eztarriak ongi berotzeko eta oinak dantzan paratzeko aukera ederra izanen dugu!

## Laia lasterketa

Arratsalde horretan, JAI ALAI, lairiak izanen ditugu, gehienak Garesetik etorritakoak eta baten bat Lizarrakoa bertakoa. Ikustekoa izanen da lairiak Santio plazako harrizko zoruaren gainean norgehiagoka nola moldatzen diren!

## Jauziak

Dantzari eskainiko diogu igandeko JAI ALAI. Edonori irekitako dantza saioa izanen da. Giro aproposa sortuko da ez dakitenek ere ikas dezaten.

## Karba eta toka

Asteleheneko JAI ALAI punteria probatzeko aukera izanen dugu, toka zein karba jokoetan. Tokakoak, jaurti beharreko burnitxapak izaten dira; karbakoak, aldiz, harri kozkorak. Beraz, ea ze punteria duzuen!

## Arrautzaren jolasa

Asteartean, jaietako Umeen Eguna izendatua izanik, hauei bereziki zuzendutako jolas bat izanen da JAI ALAI: koilaran arrautza hartu eta ahoan eramanaz ustekabez hornitutako ibilbidea egin beharko da.

## Sokatira txapelketa

Asteazkenean soka luzea aterako dugu Santio plazara eta txapelketa ospatuko dugu. Lau laguneko taldeak ariko dira norgehiagoka sokatiran. Talde irabazleak izango du bere saria: Garean kamixetak eta oilasko afaria.

## Egitaraua

### Ortzeguna 30

- 19.00 **KULKIren eskutik: Arrantzaleen jolasak** (San Juan plazan)

### Larunbata 1

- 12.00 **Lizarran Kantuz** (Baxenafarra kaletik hasita)
- 20.30 **Jaijai: Laia lasterketa** (Santiago plazan)

### Igandea 2:

- 20.30 **Jaijai: Jauziak** (Santiago plazan)

### Astelehena 3:

- 20.30 **Jaijai: Karba eta Toka** (Santiago plazan)

### Asteartea 4:

- 20.30 **Jaijai: Arrautzaren jolasa** (Santiago plazan)

### Asteazkena 5:

- 19.30 **Jaijai: Sokatira** (Santiago plazan)





**GARI eta SEI**

ANDER SOLANO

SEI, ZIUR NAGO GURE EGOERAK  
KRISIAREN AURREAN,  
GUTXI BARRU KRISTON BIRA  
EMAN BEHAR DUELA...!!



## Erraldoi eta buruhaundiaren ibilbideak

### **ORTZIRALA, 31** Irteera 16:30etan

Udaletxea, Gaiteroen karrika, Nagusia, Puy, Izarra, Foruen enparantza, Caldereria, Santiago enparantza, Nagusia, Zapateria, Ruiz de Alda, Espoz y Mina, Ruiz de Alda, Zapateria, Udaletxea, Gaiteroen karrika, Carpinteria, Gaiteroen karrika eta Udaletxea.

### **LARUNBATA, 1**

Irteera 10:30etan

Udaletxea, Gaiteroen karrika, Carpinteria, Izarra, Foruen enparantza, Caldereria, Santiago enparantza, Nagusia, Puy, Izarra, Carpinteria, Gaiteroen karrika eta Udaletxea.

### **Irteera 17:15etan**

Udal Korporazioa lagunduko da San Pedro elizako bezperetara, Gaiteroen karrika, Nagusia, Zapateria eta Txapitel. Elizkizunak bukatutakoan kale berberetan zehar itzuliko da Udaletxera.

### **IGANDEA, 2**

Irteera 10:30etan

Irteera Udaletxetik, Gaiteroen karrika, Nagusia, Zapateria eta Txapitel. Hemendik prozesioaren ibilbidea egingen da, gero aitutako kale berberetan zehar itzultzeko.

### **ASTELEHENA, 3**

Irteera 11:00etan

Udaletxea, Gaiteroen karrika, Nagusia, Santiago enparantza, Entrañas aldapa, Deierrri etorbidea, Uharte Donibanekoa Doktorea, Trenbideko zubia, Arieta, San Jeronimo egoitza, Arieta, Andia, San Juan zubia, Deierrri etorbidea, zezen plaza, Deierrri etorbidea, Sorkunde Garbiaren pasealekua eta Udaletxea.

### **ASTEARTEA, 4**

Irteera 11:00etan

Udaletxea, Antso Ramirez, Nabarrerria, Izarra, Foruen enparantza, Nagusia, Gaiteroen karrika eta Udaletxea. Jarraian, Udal Korporazioa lagunduko da San Pedro de la Rua elizaraino, eta ohizko kaletan zehar itzuliko da Udaletxeraino. Ondoren, Sortzez Garbia, San Andres, San Beremundo, Biako Printzea, Coronacion enparantza, San Andres, Sorkunde Garbiaren pasealekua eta Udaletxea.

### **ASTEAZKENA, 5**

Irteera 11:00etan

Udaletxea, Gaiteroen karrika, Carpinteria, Izarra, Nabarrerria, Erraldoi eta Buruhaundiak, Puy, Nagusia, Zapateria, Antso Ramirez, Azucarero zubia, San Martin enparantza, Rua, Hilobi Santua, Rua, San Nicolas, Aben Seraq, Anai Diego Lizarrakoa, Llanos-etako zubia, Antso Azkarra, Sorkunde Garbiaren pasealekua, Behe Nafarroa, Foruen enparantza, Comercio, Nagusia, Gaiteroen karrika eta Udaletxea.

### **ORTZEGUNA, 6**

Irteera 11:00etan

Udaletxea, Antso Ramirez, Nabarrerria, Erraldoi eta Buruhaundiak, Puy, Izarra, Foruen enparantza, Caldereria, Santiago enparantza, Nagusia, Behe Nafarroa, San Andres, Sorkunde Garbiaren pasealekua, Gaiteroen karrika, Nagusia, Behe Nafarroa, Foruen enparantza, Izarra eta Ospitale Zaharra.



kotarro

9. zenbakia

Navarro Villoslada, 1 - 4.E

31200 Lizarra - Nafarroa

Tel. 615 752 842

Argitaratzen du:

**Lizarrako GAREAN Euskaldunon Elkarteak**



Diseinua eta maketazioa:

Chapitel Komunikazioa

Lege gordailua: NA. 1986-2007

Ale kopurua: 800

UDALBIDE  
ELKARLAN ELKARTEA

Kotarro aldizkarian agertzen diren artikuluak edukinaren ardurarik GAREAN Euskaldunon Elkarteak ez du hartzen, edukiaren erantzukizuna, bere osotasunean, autoreena baita.